

Irma Errea

In FB we trust

Horrela deitzen da Facebooken bertan Youssef batek frantsesez sortu duen taldea. Sortzailearen aldarrikapenari ironia dario, eta taldeak dozena bat kide baino ez du bildu. Hortik ondorioztatu ahalko genuke jende asko ez dela FBrekin fidatzen. Hala ere, sare horretan zenbat lagun dabilen besterik ez da ikusi behar, kontrakoa jakiteko, hau da, jendetza direla Facebooken nola-baiteko konfidantza dutenak.

Euskal Herrian azkenotan hainbat eztabaida piztu dira Facebooken inguruan, eta hori, eztabaidarik izatea, interesgarria da, orain arte nahiko modu arinean aritu baita gutako anitz Facebooken, batez ere, gazteagoen artean. Sarean, Facebooken edo beste edozein gunetan, den-dena esaten eta den-dena erakusten ibiltzearen arriskuaz jabetzeko ordua iritsi zaigu. Bazen garaia.

Ni ere moderno samarra naiz, eta badut kontua Facebooken, baina hasieratik bertatik ez naiz oso eroso sentitu bertan. Ez dut erabat aukera baztertzeko: nire deserosotasun mailak koska bat gora eginez gero, bertan behera utziko dut harpidetza. Momentuz, urrun bizi diren hainbat seniderekin gutxieneko loturari eustea estakuru, hor segitzen dut, baina bertara sartzen naizen bakoitzean, hainbeste eskaera eta hainbeste informazio eta irudi –maiz hutsalak– topatzeak sortzen dizkidan larridura eta nahasmenduarekin batera, hainbat galdera datozkit burura.

Jakin-min handiena sare horien arrakastaren zergatiak pizten dit. Zer dela-eta horrenbeste jende halako sareei atxiki, eta zer dela-eta hain atxikimendu handia?

Erantzun koherenterik ez dut topatu, baina funtsean, gizon-emakumeon sakoneko izaera egongo da seguruenik: Facebook eta enparauek jendartean bizitzeko eginak garela frogatzen dute. Hori, ordea, ez zait arrazoi nahikoa iruditzen sare sozial horiek hain menta handia izateko.

Ikusminak, aldiz, edo kuxkuxean ibiltzeko joerak, nondik begiratzen diogun, zerikusi handia izan dezake arrakastan. Internetek, berez, pagotxa handia dirudi, lehen begiratuan, edonoren jakin-nahia asetzeko, eta Internetek tresna bikaina eskaintzen du, bes-



teen bizitzen berri jakiteko. Facebook hori da, besteak beste: leiho zabal bat, halakoa non besteak zertan ari diren zelatatzen ahal baitugu, garai batean herri txikietan hainbatek etxeko leihoetatik egiten zuten modura. Orduan, etxeko leihoetatik kanpoko bizitza barrandatzten zutenek errezen gibelean gorderik egiten zuten. Eta beti ez, baina gehienetan, haien burua salatzen amaitzen zuten. Errezelen mugimendu leun bat nahikoa zen. Kuxkuxero haiek nola, Facebooken ere ezin da espiatu ikusia izan gabe. Baina, jakina, batzuk trebeagoak izaten dira besteak baino, disimuluan aritzeko orduan, eta errezel guztiek ere ez dute berdin estaltzen.

Facebook, bestalde, gizon-emakumeon bestelako joeren salatari ere izan daiteke. Esate baterako, uste baino askoz jende gehiagok du gogoko besteen aurrean bere burua nabarmentzea, eta hori ederki profitatzen dakite hala telebistek nola sare sozialek.



Etxeko leihoetatik kanpoko bizitza barrandatzten zutenek errezen gibelean gorderik egiten zuten. Eta beti ez, baina gehienetan, haien burua salatzen amaitzen zuten. Errezelen mugimendu leun bat nahikoa zen. Kuxkuxero haiek nola, Facebooken ere ezin da espiatu ikusia izan gabe. Baina, jakina, batzuk trebeagoak izaten dira besteak baino, disimuluan aritzeko orduan, eta errezel guztiek ere ez dute berdin estaltzen



Facebooken arrakastaren arrazoiak horiek izan edo ez, seguru da haren asmatzaileek aski ongi neurtu dutela dena, eta neurtu dituzten gauzen artean gizon-emakumeon *abulezia* horiek hartu dituztela kontuan. Facebooken atzean nor dagoen ez da seguru, baina segurutzat jo dezakegu tresna ez dela asmatu, soilik, herritar arrunten gogoak betetzeko. Horregatik, *Anaia Handia* izanik edo izan gabe, hobe dugu leihoa zabal-zabal ez edukitzea. Eta errezelek ere badute xarma. ■